



Arangurenazpikoa etxebizitza

Aldacrak: Okangoaranguren / Berrizaranguren / Kastorrena
Ahozkoa: Aranguren



43° 10' 32"

2° 33' 8"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Baserri honen gaineko lehen arrasto dokumentala 1704koa da. Berriz eta Zaldibarren arteko mugan kokatzen da, *Aranguren* izenez ezagututako zonaldean. Bertakoek Zaldibarko etxeak eta Berrizkoak bereizten dituzte: *Zaldibararanguren* eta *Berrizaranguren*. Aipaturiko baserri hau eta *Aranguren*etxebarria (**Ikus Aranguren**etxebarria) zein-*Mendikoa* (**Ikus Mendikoa**) baserriak jabe berdinarenak ziren.

Auzotarrek *Aranguren* edo *Aranguren*azpikoa moduan ezagutzen dute baserria, baita *Kastorrena* moduan ere. Azken izen hori Juanitaren aitonaarengatik dator: Jose Castor deitzen zen, eta ondorioz, familia eta baserria *Kastorrena* moduan ezagutu dira. Bestalde, idatzizko dokumentuetan, *Aranguren* (1704, AI-EO), *Berriz Aranguren* (1865, DJE, 1/ 116. or.), *Okango Aranguren* (1745, AI-EO) eta *Aranguren vieja* (1864) DJE, 1/ 66. or.)

*“... la casería rústica titulada Aranguren vieja... radicante en el barrio de Ocampo de la Anteglesia de Berriz, que ocupa una planta solar de doscientos setenta y ocho estados, que equivalen a mil cincuenta y siete metros cuadrados, con inclusión de su tejabana, horno y antusanos, y se compone su piso llano de zaguan, dos cocinas, dos aposentos, cuadra y dos tejabanas unidas a la casería, y su piso principal de sala, dos cuartos, saleta y alcoba, y en el resto dos pajares, siendo su construcción de paredes de mampostería por los cuatros costados, con los revestimientos de las puertas, ventanas, angulos y arcos de piedra labrada... corresponden a esta casería... las dos accesorias [Aranguren*etxebarria y *Mendikoa]...”*
DJE 1/65 or. (1864)

toponimia

Baserri honen izena, beste kasu askotan bezala, baserria baino zaharragoa da, esanahiak argi uzten duen bezala. Izenaren osagaiak haran, Euskal Herriako toponimian arrunta den hitza, oso menditsua den gure herrian ugariak baitira haranak, eta guren dira. Azken hitz hau Erdi Aroan ageri da “eder” esangurarekin. Beraz Haraneder moduan ulertu behar dugu izen hau, baina garai hartako eta egungo edertasuna ezin ditugu parekatu eta pentsatu behar dugu ugaritasuna edo emankortasunaz ari zirela. Sarritan esan dugun legez Bizkaiko etxe izenak Euskal Herriko luzeenak dira. Arrazoia ulertzea erraza da. Maiz, Erdi Aroan etxe bat egon zen inguruan gehiago eraiki ziren eta guztiek gorde zuten jatorrizko izena. Bereizteko bigarren osagaibat hartu zuten: Zengoitagoitia, Trañauregia, Gazteluiturri. Kasu honetan Aranguren guneko etxe biren azpikoa da.



BUA / Mapa topografikoa, 1933

moduan agertzen da. Azken izen hori, batez ere 1851tik aurrera ageri zaigu, Arangurengo etxe berria egin eta gero.

Bizitza biko baserri handia da eta, guztiz simetrikoa ez bada ere, bere fatxada nagusiari erreparatu ezker, ondo antzematen da etxe orekatua egiteko asmoa. Etxearen ardatza markatzen du atarteko bi arkuen arteko pilareak. Eta horren arabera antolatzen dira leiho guztiak, nahiz eta ezkerraldean, beheko solairuan ez dauden. Lehengo solairuan hiru dira

alde bakoitzean; ganbaran, bana; eta tartean, izkinan, txikitxo bana. Jatorriz hormak egiteko erabili zen harlangaitza estalita eta pintatuta egongo zen; arkuen, leiho eta kantalak egiteko usatu zuten harlanduaren kolore gorrixkarekin kontraste eginez. Gaur egun lehengo solairutik gora mantentzen dute hasierako itxura hori. Bi isuritako teilatua dauka. XIX. mendean eraikitako baserria dirudi.